

Ituan jotzen trebe

Karlatz
Dardo Taldea,
bere unerik
gozoeanean ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2005-11-06 ▶ III. urtea ▶ 730. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Hegaztirik gabeko Tolosako azokan, saltzaileekin berriketan

TOLOSALDEA ▶ Hegazti gripea dela-eta jarritako debekuak azokan eragin nabaria izan duela diote, 6



Hegazti saltzaileek ez ezik, gainerakoek ere nabaritu dute aldaketa debekuaren ondoren. J. ASTIBIA



M. SAN SEBASTIAN

Irri artean, Kultur Hamabostaldiari agur

OREXA ▶ Giro apartan, pailazoak, herri afaria eta erromeria izan ziren azken egunean ▶ 7



ASIER ARTOLA ▶
URRUZUNO SARIA

«Idazterakoan ez dut gehiegi planifikatzen, atera egiten zait»

Idazle gazteentzako Urruzuno saria irabazi du anoetarrak ▶ 5

Asier Artola idazle gaztea. J. SAIZAR



jantzi hitza ren jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

UZTURRETIK ▶ RAMON OLASAGASTI

Obaba: mila hitz eta irudi bat



Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela diote. Ez dakit. Aurrekoan, nire irudimenean lausotutako mundu bat agertu zitzaidan zinemako pantailan. Beno, agertu baino, desagertu. Hitzez hitz, ipuinez ipuin, Bernardo Atxagaren magiak nire irudimenean eraikitako

mundu hura deusezten joan zitzaidan, pantailako irudien poderioz. Irudiek irudimena zikiratuko balute bezala. Uzta-
rozko kaleak, Izabako paisaiak ikusi eta Obaba hura arrotz egin zitzaidan oso. Liburuko pertsonaiak nolabait deserrotu eta unibertso batetik bestera lekualdatu izan balituzte bezala. Atxagaren unibertsoetik Armendarizenera. Asteasutik Erronkarira. Eta liburuan euskaraz mintzo zitzazkidanak gaztelaraz entzutean, akabo, orduan Obaba bi egon behar dutela pentsatu nuen, Gaintza bi edo Gazte-
lu bi dauden bezala.

Izan ere, eskola garaian, hasieran beharturik eta gero liluraz irakurritako *Obabakoak* hartan ageri zen herri hura bestelakoa imajinatzen nuen. Areago, aurten bertan, *Soinujolearen semea*-ri esker Obabako paisaiak eta herri giroa xehetasun gehiagoz osatu ahal izan ditudanean. Iruian eta inguruko basoak, Ur-tza, Villa Lecuona, zerrategia... David, Lubis, Ubanbe, Joseba eta Soinujolearen semearen inguruko gertaerak eta istorioak ere nekez izango ziren berberak Erronkarin edota Obaban. Gerra ez baitzen berdina izan han eta hemen.

Halaz ere, gustura, oso gustura ikusi nuen filma. Maite baitut Armendarizen mundua ere, Erronkariko herrien nostalgian urratzen duen begirada hori —zein film ederra, *Secretos del corazón*— baina ez zitzaidan gustatu Obaba nire irudimenearen mapatik modu horretan ezabatzea. Herri euskaldun oso bat gaztelaraz mintzatzen jartzea, euskaraz film bat egitea errentagarria ez delako. Irudiak hitzak baino garestiagoak direlako. Horregatik, aukeran, askozaz nahiago nuen mila hitzez eraiki eta muskerak erdi jandatu zuten nire irudimeneko Obaba hura.

ASTEKO IRUDIA ▶



IÑIGO TERRADILLOS



37. Abesbatza Lehiaketako sari nagusia, Norvegiako Schola Cantorum-entzat

Leire Montes ▶ Giro onean jokatu dute, aurten ere, Tolosako Abesbatza Lehiaketa. 37. edizioak bazuen aparteko berezitasunik, Leidorreko birmoldaketa lanak direla-eta Usabalek hartu baititu abesbatzen emanaldiak. Hasierako ezjakintasuna gaindituta, TEEko antolatzaileak gustura azaldu dira aurtengoak eman duenarekin. Torme Bian-

ca Dahlek zuzentzen duen Norvegiako Schola Cantorum abesbatzak irabazi du aurtengo sari nagusia (argazkian, garaikurrak jasota, Usabal kanpoaldean). 2006ko ekainean Tolosa ordezkaturiko dute norvegiarrek, Leidorreko lanak amaituz gero, herri-
rian bertan jokaturiko den Europako Sari Nagusian. I. TERRADILLOS

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

IRITZIA ▶ AITOR MENDILUZE (GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO IDAZKARIA)

Bertsolaritza Tolosaldean

Egun gutxi dira Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetan Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektua garatzeko Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Bertsotale Elkartearen arteko hitzarmena berritu dela. Eta, honen bitartez, Tolosako 500 gaztetxok ahozko komunikazioa landuko dute bertsoak bitarteko bezala erabiliz. Aurten Villabonako ikastolan ere martxan jarri da proiektu hau, eta beste zenbait zentzorekin harremanak bideratu dira.

Honekin batera, bertso eskoletan egiten den lanak aurrera darrai, eta ikasturte berriari ekiten ari diren honetan, Tolosan ere bertso eskola berreskuratze ahaleginetan gabilta. Alegian ere talde bat biltzen hasia da bere kasa bertsogintza lantzeko; eta, gainera, aukerak egon daitezke ere gaztetxoentzako talderen bat osatzeko.

Esan daiteke, beraz, transmisioaren alorrean ahalegin handia egiten ari dela Tolosaldea, eta datozen urtetan lan horren fruituak ikustea espero dela. Horrek ez du esan nahi dena egina dagoenik, baina bai kontzientzi maila handia dagoela, eta horri forma ematen hasita gaudela.

Saioen ohiko martxari dagokionez, berriz, jakina da Tolosaldeko herrietan saio dezentetako egiten direla urtean zehar, eta saio horiek mantendu egiten direla urtetik urtera; herri handietan bai, behintzat. Herri txikienetan jaien inguru-



Tolosako ikastetxeetako ikasleek jaialdia eskaini zuten iaz ikasturte amaieran Leidorren, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektuaren baitan. L. MONTES

ruan egiten dira nagusiki, eta antolatzaileen aldatetaz gatik batzuetan, aurrekontu arazoengatik beste batzuetan, edota arrakasta faltagatik zenbaitetan, herri batzuetan saio horiek galdu egin dira, edota lehen izan duten garrantzia galdu dute. Baina, orokorrean, argi dago bertsolaritzak Tolosaldean presentzia han-

dia duela. Saio batzuetan azken urtetan entzuleen gorakada bat ere eman dela esango nuke, eta horrek presentzia izaiteaz gain osasuntsu ere badagoela adierazten du. Aurrera ere hala jarraitzea espero dugu!

Bertsolarien kasuan ere bada zer esanik. Bailarako bertsolarien artean maila eta bertsokera oso ezberdineko kideak daude, eta bakoitzak bere bidea egin eta egiten duela esan daiteke. Denek ez dute agian mailagatik mereziko luketen adina plaza egiteko aukerarik, baina bakoitza bere ingurunean errekonozimendu bat baduela esan dezakegu, eta hori positiboa da bai haien artean eta baita inguruko bertsotaleentzat ere, bakoitzak eragin egiten duelako bere girako bertsotaleengan, mugimendu bat indartuz.

Egia da beti izango dela gustuko ez gaituenik, orokorrean gaur egungo bertsolariak garai batekoen aldean eskasak garelako dioenik, edota bertsolaritza bera gauza zaharkitu bat dela uste duenik ere; baina zer egingo diogu, bada. Uste dut bertsolaritzara inguratu eta zerbait bilatu nahi duenak sorpresa asko aurki ditzakeela, eta berez zalea denak baduela non eta zerekin gozatua; baina hortik aurrera bakoitzak ikusi beharko du, eta gustuei buruz...

Orokorrean bertsolaritza Tolosaldean osasuntsu eta aurrera begira animoz hartzeko moduan dagoela esan daiteke. Hori bai, horretarako beharrezkoa izango da bertsolaritzaren arlo ezberdinak zaintzen eta lantzen jarraitzea, eta hori zale guztion esku dago. Animo!

TRANSMISIOA

«Alor horretan ahalegin handia egiten ari da Tolosaldea, eta datozen urtetan lan horren fruituak ikustea espero da»

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna?

Harriturik geratu naiz honekin ere. Leku guztietatik bertsoak sartu nahia? Buf! Galdetu iezaziezu Maixu Joxeren ikasleei [aurreko iritzi bati aipamen eginez] edo beste jende askori. Ez nuke esango, jakinik gainera gaur egungo gizartean badi-rela interes jakin batzuegatik egunero-egunero sartzen dizkiguten gai mordoak, futbola tarteko. Ez dut uste konparatze-koak direnik.

ETORKIZUN ONA ▶ 2005-10-24

Bertsolariekin kokoteraino nago! Bertsolaritza eta pilota gogoko ez dugunontzat ez dugu ezer ikusteko ETB1 katean!

POPETO ▶ 2005-10-25

Beraz, kotileoak eta futbola ikusten hasi beharko duzu kate espainoletan.

ANDER ▶ 2005-10-26

Nik telebistan albistegia baino ez dut ikusten. Filmak zuzenean Internetetik jaisten ditut, eta ez dago nire arreta erakartzen duen beste ezer. Eta bai, ziur baina ziurrago nago ETB1 merezi ez dugun telebista publikoak dela, egundoko kaka zaharra!

POPETO ▶ 2005-10-28

Adimen gutxiko horri: bertsolaritza eta kotileoa beste alternatibarik ez dago, ala? Mese dez... Bertsolaririk gabe ederki bizi daiteke!

- ▶ 2005-11-03

Abian da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Gure eskualdetik, nor iritsiko da urrutien?

Zorriker onena denei, laukote honetan [Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Bixente Gorostidi] nire aldeko botoa Aitor Mendiluzeri ematen diot.

TRINIDAD ▶ 2005-10-10

Ez dut bertsolari bat bera ere ezagutzen.

XAPO ▶ 2005-10-11

Saio ona egin dezatela denek.

- ▶ 2005-10-12

Beste galdera bat proposatuko nuke nik: Hasi berri da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia; ba al duzu jarraitzeko edo saioen batera joateko asmorik?

- ▶ 2005-10-19

Inola ere ez.

AURREKO GALDERARI ▶ 2005-10-21

Nire botoa izan da Amaia Agirrerentzat, poliki-poliki hor gailurrean ikusi nahi dudalako Maialenekin. Baina, horretaz gain, hitz jarria duen pertsona, lasaitasuna transmititzen duena eta alaia delako.

IZASKUN ▶ 2005-11-02

Ni ere aurrekoarekin ados nago, eta Amaia Agirrerren aldeko botoa eman dut. Pena da Bixente Gorostidi kanpoan geratu izana. Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu, bi bertsolariak gustatzen zaizkit; baina nesken alde egingo dut. Finaleraino!

AUPA, NESKAK! ▶ 2005-11-05

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

asteleheneretik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Asteleheneretik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendora eta Anoeta. Asteleheneretik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Harreragileak. Harreragile-telefonista. Udalekxetarako plaza libreak. Informa zaitetz

943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldari laguntzaileak. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

IBARRA ▶ DARDOAK

IÑIGO ASENSIO

Europako Txapelketan Luis Oruezabalak eta Koldo Llorentek bikoteka lorturiko 8. postuarekin, Karlitz Dardo Taldea Euskal Herriko talde indartsuenetako bat dela esan daiteke beldurrik gabe. Duela bi urte soilik sortu bazen ere, maila handiko jendea dutela erakutsi dute azken hilabeteotan. Espainiako Txapelketa irabazi eta Europakoan zortzigarren —bikoteka, master mailan— eta hirugarren —bakarka, amateur mailan— izan ondoren, denboraldi berrian «emaitza onak» lortzeko helburuarekin ari dira lanean.

Urtea bi denboralditan bantzen dute, irailtik abendura doana eta otsaila amaieratik maiatzera jokatzeko dena. Lehenak Espainiako Txapelketan parte hartzeko sailkatzen du, eta bigarrenak, berriz, Europako Txapelketarako. Parte hartu zuten lehendabiziko Liga 3. Mailakoa izan zen, eta Liga hori irabazi egin zuten. Horrela, hurrengo urtean 2. Mailan lehiatu ziren. Maiatzean Herbeheretara bidaiatu zuten, Europako Txapelketan parte hartuz, amateur mailan, 3. Mailan, alegia. Hurrengo Ligan Luis Oruezabal hasi zen 2. Mailako taldean lehiatzen, eta urte horretan ere Liga irabaztea lortu zuten; horrekin, Espainiako Txapelketarako sailkatzea gain, Lehen Mailara igo ziren. Orduan hasi ziren lorpen handienak.

Espainiako Txapelketa bikoteka irabazteaz gain, taldeka bigarren geratu ziren. Saria Europako Txapelketan parte hartzea izan zen, bidaiak eta egonaldia barne; eta, ilusioz beterik, otsailean Lehenengo Mailan jokatzeko hasi ziren, Europako Txapelketarako prestatzen joateko. Txapelketa honetan Colonial (Alemania) aritu ziren. Bertan bikoteka 8. izan ziren master mailan, 2. Mailan, alegia; eta Luis Oruezabal 3. izan zen amateur mailan, hau da, 3. Mailan. Alemanian lortu zutenaren ondoren, Euskal Herriko talde indartsuenetarikotzat dute dardo jokalarik gehienek.

Gero eta gehiago

Aitor Ezkerra taldeko presidenteari esanetan, «gero eta gehiago» dira dardo taldearekin lehiaketetan parte hartuzera

Dardotan iaioak

Espainiako eta Europako Txapelketetan lorturiko emaitzekin, Karlitz Dardo Taldea bere unerik onenean dago, helburu berriei aurre egiteko prest



Ezker-eskuin: Aitor Ezkerra taldeko presidentea, Luis Oruezabal eta Koldo Llorente kapitaina, Karlitz tabernako dardo makinaren ondoan. I. T.

animatzen direnak. Une honetan zazpi talde dira guztira. Bat Lehenengo Mailan, bi Bigarren Mailan, hiru Hirugarren Mailan eta bat Nesken Ligan. Aitor Ezkerra itxaropenaz beterik ageri da etorkizunera begira. «Lehen eta Bigarren Mailan dauden hiru taldeek aukera asko dituzte beren ligetan, eta baita neskek ere. Gauza garrantzitsuak egin daitezke denboraldi honetan».

Hasieran Donostiako Campus tabernako arduradunek, hau da, Gipuzkoako dardo ligak kudeatzen dituztenek dardo makina jartzea proposatu ziotenean, Ezkerrak ez zuen guztiz garbi ikusi; baina jendearen harreraz jabetuta, bigarren makina bat jartzea behartuta ikusi zuen bere burua. «Jendeari taldea sortzea proposatu nionean, ezin pentsa nezakeen gaur zazpi talde izango genituenik» dio, gustura, Karlitz Dardo Taldeko presidentek.

LUIS ORUEZABAL ETA KOLDO LLORENTE ▶ DARDO JOKALARIAK

«Hemendik otsailera, Ligan ahal den lanik onena egiten saiatuko gara»

Espainiako Dardo Txapelketa bikote bezala irabazi zuten lehenago, eta hilabete batzuen buruan 8. izan ziren Colonial (Alemania) jokaturiko Europako Txapelketan, Euskal Herriko eta Espainiako lehenak izanda. Urte pare bat besterik ez badaramate ere, lorpen handiak dituzte epe horretan. Bi urte horietan emandako pausoz mintzatu dira HITZAREKIN Koldo Llorente eta Luis Oruezabal.

Zer dela-eta hasi zineten dardotan jokatzeko?

Guztia Karlitz tabernako giroan gertatu zen. Bertan dezente egoten ginen, eta dardo makina jartzean, jende asko bezala, jokatzeko hasi ginen. Behin Aitorrek, Karlitzeko jabeak, Liga batean parte hartzeko aukera eskaini zigun; taldea osatu zen, eta azkenean bikote bezala jokatzeko erabakia genuen.

Nola izan daiteke jokatzeko hain denbora gutxi daraman bikote batek Espainiako eta Europako Txapelketetan o-



IÑIGO TERRADILLOS

rrelako parte-hartze arrakastatsuak izatea?

Egia esan, ez dakigu. Gu inongo helburu zehatzik gabe hasi ginen jokatzeko. Denbora pasatzean jokoan hobetzen zoazela nabaritzen duzu, baina guztiak ezustean harrapatu gaitu. Dena joko bat bezala hasi zen, eta bat batean Europako Txapelketan ginen. Euskal Herriko eta Espainiako lehen saikatuak ginela jakin genuenean, pozik sentitu ginen, noski, baina ez da ezer gehiegi aldatzen.

Ziur helburuak ere badituzela gertuko etorkizunera begirara...

Hemendik otsailera, Ligan ahal den lanik onena egiten saiatuko gara. Saikapeneko bigarrenak gara orain, eta horrela jarraituz gero Espainiako Txapelketan izatea lortuko genuke. Hori dugu helburu une honetan. Gerora ikusiko dugu zein aukera berri agertzen diren; baina garrantzitsuena, noski, hobetzen jarraitzea da. ◀

ENKARGUETARAKO

tolosaldeko mutil bat behar da,
urria, azaroa eta abenduan

Interesatuak deitu 685 730 204 telefono zenbakira

ASIER ARTOLA ▶ URRUZUNO SARIAREN IRABAZLEA



JOKEMI SAIZAR

«Egungo literatura ez dut irakurtzen, nahiago ditut XIX. mendekoak»

Idazle gazteentzako Urruzuno saria irabazi du anoetarrak prosa atalean; Polonian zehar egindako bidaiarekin «pozik» agertu da

JOKEMI SAIZAR

Diru sariaz gain, irailean Polonian zehar egindako bidaia izan du Urruzuno literatur lehiaketaren saria, eta «pozik» agertu da Asier Artola anoetarra. Gaur egun Batxilergoko 2. maila ari da ikasten Tolosako Laskorain Ikastolan eta unibertsitatean historia ikasi nahiko luke. Oso gaztea izanik, gustuko dituen filosofia, historia eta gizarte gaietaz lasaitasunez hitz egiten du. Irakurle amorratua, aspalditik idazten du. Bide horretatik jarraitzeko motibatuko du sariak.

Nola animatu zinen Urruzuno sarian parte hartzea?

Euskarako irakasleak animatu gintuen klasean landu ondoren. Maiatzean aurkeztu nuen lana eta berehala esan zidaten irabazle izan nintzela. Irailean izan zen sari banaketa ekitaldia eta Sagastiberri bildumako liburua aurkeztu zuten lan irabazle guztiekin. Lehen ere bi aldiz, 2002an eta 2003an, irabazi dut Uxola saria, prosa atalean beti.

Nolakoa da ipuina?

Internuaren mugetatik du izenburua. Kalean aspertuta bizi den eskale baten bizitza konta-

tzen du. Gizartea eta heriotza gaiak ikutzen ditu. Gehiegi pentsatu gabe idatzi nuen. Idazterakoan ez dut gehiegi planifikatzen. Atera egiten zait. Eta nabari da nire testuetan. Uxola sariko testuak gazteetxeko nintzela idatzi nituen, fantastikoagoak dira.

Gustura emaitzarekin?

Bai, batez ere Poloniako bidaiarengatik eta egindako lagunengatik. Urtzi Urrutikoetxea idazle gaztea izan genuen gidari —bidai agentziak jarritako beste batekin batera—. Hango literatura azaldu zigun. Hamar eguneko bidai zoragarria egin

dugu irailean, Poloniako bazterrak ezagutzen lehiaketako beste irabazleekin batera.

Zerk harritu zaitu gehien?

Auswitz. Hango kontzentrazio zelaia, gas kamarak...

Hurrengo urtean parte hartzeko animatuta?

Bai. Motibazio handia izan da. Eta inguruko lagunak ere animatuko direla uste dut. Beste lehiaketa batzuetan ere saiatuko naiz. Eta noizpait libururen bat idatzi nahiko nuke.

Asko irakurtzen al duzu?

Bai, betidanik, batez ere prosa.

Zein euskal idazle duzu gustuko?

IDAZTEA

«Idazterakoan ez dut gehiegi planifikatzen, atera egiten zait, eta nabari da nire testuetan»

Euskaraz ez dut gehiegi irakurtzen. Joseba Sarrionandia eta Ramon Saizarbitoria ditut gustuko. Honen *Hamaika pauso* liburua, adibidez.

Eta gaztelaniaz?

XIX. mendeko literatura, errealistak batez ere: Perez Galdos, Dostoievski, Gogol errusiarra... *La Regenta* liburua, adibidez. Baita entseguak ere, testu filosofikoak...

Zure adineko jende gutxi irakurriko ditu horrelakoak.

Bai, baina badituz horrelako lagun batzuk eta haiekin komentatzen dut. Orain Poloniako bidaiaren ezagututako lagunekin ere Internetez harremana badut ia egunero gai hauen inguruan eztabaidatzeko.

Batxilergoa bukatutakoan, zer ikasteko asmoa duzu?

Historia ikasi nahi nuke. Orain arte nota onak ditut eta sartzeko arazorik ez izatea espero dut. Filosofia, gizarte eta politika gaiak gustuko ditut, baina batez ere historia.

Historia nobelatuak modan daude: 'Los pilares de la Tierra', 'El código de Vinci' eta antzeko 'best-seller'-ak.

Gaur egungo literatura ez dut ia irakurtzen, nahiago ditut XIX. mendeko errealistak. *El código de Vinci* irakurri dut eta interesgarria iruditzen zait, baina oinarri erreala dituen zalantza egiten dut. Zaila da hori frogatzea.

Zer ari zara irakurtzen?

Urtzi Urrutikoetxearen *Azuoa*. Bilboko bizimodu, errealitatea, pertsona errealean historia azaltzen du betiko Bilboko topikoetatik alde egiten.

Anoetan ere horrelako zer-bait egin dezakezu?

Anoetan ere denetatik dago. Agian gertaera historiko batekin lotuta —Gerra Karlistako— errazago egingo nuke.

HITZA **txokoa** lagunen

Egin zaituz harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

AZOKAK ▶

Hegaztirik gabeko azoka

Hegazti gripea dela eta, hegaztien salmentarako postuak jartzearen debekuak eragina izan du gainerako saltzaileentzat ere Tolosako azokan bertan

JAIONE ASTIBIA

Tenore honetako berdura mardul askoak, fruta fresko eta lehorrak, kolore biziko eta usain gozoko loreak, behi, ahuntz eta ardi gaztak, ogiak, mila lore, nahiz ainar, nahiz erromero-etzia, onddo, gibelurdin, eta bestelako perretxikuak, akuriak, arraultzak... Atzo gauza hauek guztiak zeuden salgai Zerkausian, ia betiko ohitura den moduan. Eskualdeko baserritarrek beren produktuak zuzenean saltzeko aukerako txoko bakarrenetakoa izanen da, asko okertu gabe, honako hau.

Saltzaileak goizean goizetik hantxe ari ziren lanean betiko erosleekin hartu-emanetan fin asko. Eta HRTA bezalako noiz-behinkako bisitariei ere hitza eskaintzeko prest. Izan ere, atzo hantxe izandu ginen gu ere bueltatzea egiten, zer ikasi, aspaldi honetan gure buru gainetan, nondik ailatuko zaigun, airean darabilkigun hegazti-gripen delakoaren eraginetaz galdezka, Gipuzkoako Foru Aldundia «oilategiko hegaztien bateratze guztiak eta azoka, erakusketa eta kultur ospakizunetan egiten direnak debekatu» dituela jakitun izaki. Eta han egiaztatu genuen debeku hori indarrean dagoela. Lehen aitaturtako produktuen zerrenda horretan, hain zuzen ere, betidanik han ezagutu diren hegaztien postuak falta baitziren: ez zegoen txitxerik, ez zegoen oilasko-oilandarik, ez zegoen kanariorik... Lumadun azindak falta ziren; eta hegazti-saltzaileak ere bai.

Baina ez denak. Galdezka-galdezka, hantxe topatu ditugu Habilio Hernandez lasartearra eta Juan Market tolosarra. Normalean, kanarioak hazi eta, urritik martxora bitartean, bertan izaten dira kanario salmentako postuarekin. Atzokoan, saltzera ezin eta zer ikusi etorriak ziren. Haiei Udaletik eman omen zieten debekuaren berri: «Kanarioak saltzera ez etortzeko abisua eman ziguten,

iragarki laburrak ▶

LANA
Psikomotrizista. Amezketako Guraso Elkarteak psikomotrizista behar du. Interesatuek deitu 665 70 17 80 telefonora.



Horrelaxe ageri zen, atzo, Tolosako Zerkausiko azoka: batzuk saltzen, besteak erosten. JAIONE ASTIBIA



MARKET-HERNANDEZ
KANARIO-SALTZAILEAK

«Zuzena iruditzen zaigu, kutsatzearena egia bada; baina gehiegizkoa ere bada, kanpokoan salgai baitaude»



MARIA PILAR UNANUE
LORE-SALTZAILEA

«Jendea galdezka etorri da txita-saltzaileaz; gure postuetan ere nabaritu dugu jende gutxiago, Nafarroatik eta»



ITZIAR ETXEBERRIA
GAZTA-SALTZAILEA

«Asko nabaritu da, batez ere berak. Baserritarrari lagundu ordez, guztia traba da. Hemen ezin da eta Nafarroan bai?»

hegazti-gripen dela eta, Europatik etorritako debekua zegoela jakinaraziz», zioten. Kanarioak beraiek hazitzen omen dituzte eta ez dute uste arriskurik dagoenik, baina «egia bada, debekua zuzena iruditzen zait, baina ez bada, gehiegizkoa», baieztatu zuten: «Gainera, kanpotik ekarritako hegaztiak saltzen jarraitzen dute lekutan; eta kanpotik etortzen diren usoez ez dute arriskurik? Ez dakit, ez dakit», zehaztu zuten. Bien hala bientzat kanarioak hazteko lan hori denbora-pasarako duten zerbait omen da, eta «nonbait hor», zioten.

Baina ez da hala atzokoan falta zen hegazti-saltzailearentzat. Berak bete ohi duen lekua hutsik ageri zen, «ziur aski debekurik ez dagoen beste lekuren batera joana izango da»,

adierazi ziguten. Edozein moduz, astero-astero, uda eta negu, loreak eta berdurak saltzen, hantxe ondoan aritzen den Maria Pilar Unanuekin hizpidetu ginen. Urrestillakoa da bera eta atzo azaldu zigunez, jende asko hurbildu zaio azken bi larunbat hauetan azoko postuaz galdezka, eta berak ere eragina nabaritu du salmentan: «Goizeko zazpietarako etortzen zen jendea Nafarroatik-eta, hegaztiak erostera, eta gero hemen gelditzen zen erosketak egiten. Orain, hori falta da», aitortu zuen. Bere iritzian, debekua «prebentzio modura baleike ona izatea, baina abenduaren 1a arte da. Eta handik aurrera? Gainera, Nafarroan ez dago debekatuta, esate baterako, eta han saldu daitezke... Gaixotasun bererako jokabideak ere hala behar

luke, ez?» argudiatu zuen berak.

Iritzi beretsua zuen Itziar Etxeberria gazta-saltzaileak ere. Haren postua barrenkalderago badago ere «salmentan asko nabaritu» dela zioen, eta «hemen lagundu beharrean dena traba da eta debekua beste bat gehiago, hara. Batez ere berarentzat, noski», zioen serio asko. Honentzat ere ulerkaitez zen debekua leku batzuetan bakarrik egotea indarrean: «Zerbait egiten ari direla esateko» dela iritziz zioen. «Arauk, debekuak... dena traba da. Geroz eta baserritar gutxiago gaude, eta dena oztoppa besterik ez da», baieztatu zuen ordiziarrek.

Atzokoan, horrelako iritziak jaso genituen, bada, guk. Norberak atera ditzala hortik aurrerako kontuak.

Egun lasaia ez ezik triste samarra ere joan da azoka

Ez da hainbesteko salmentarik izan eta hegaztien posturik ere ez, debekuarengatik

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia eta triste samarra suertatu zen. Alde batetik, eguraldiak ez zuen batere lagundu; eta, bestetik, joan den asteburu luzeko gastuek, agian, eragina izan zuen erosleen patriketan.

Eskaintza, ordea, ez zen batere kaskarra izan, eta arlo gehinetan produktu zerrenda zabalago izan zen. Hori bai, hegaztien arloan ez zegoen posturik ez eskaintzarik, Eusko Jaurilaritzaen lege berria dela eta. Dirudienez, hegaztien gripearri aurre egiteko, hobe da kalean hegaztirik ez saltzea.

Gainontzeko produktuen artean barazki zerrenda eta perretxikoen eskaintza aipagarri izan ziren: kuletoak, mendiko angulak, azaloreak, bruselazak...

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Ziklamena	5,00	-
Japoniar azalea	5,00	8,00
Krisantemoa	4,00	12,00
Krabelina	4,00	9,00
Erromeroa	4,00	-
Txinar krabelina	2,50	-
Salbia	1,00	-
Aza kizkurra	6,00	-
Perrexila (bat)	0,05	0,06

Bertako produktuak

Usoa	5,00	6,00
Gorringo-kuletoa	15,00	22,00
Mendiko angula	12,00	-
Gaztaina	2,00	2,50
Intxaurra	2,50	4,00
Banabarra	8,00	12,00
Tomatea	2,00	2,50
Azenarioa	1,20	3,00
Irasagarra	3,00	6,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baraburria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Aza	2,50	3,00
Arraultzak	3,50	-

OREXA ▶ KULTUR HAMABOSTALDIA

Kultur Hamabostaldia amaitzeko, pailazoak, afaria eta erromeria

Ekitaldiz betetako sei egun ondoren, umore ukituarekin amaitu dute orexarrek kulturari eskaini dioten astea



Haurrek arreata handiz jarraitu zuten pailazoak egiten zuena. m. s. s.

MARTA SAN SEBASTIAN

Udaletxeko ganbaratxoak kolorez jantzi eta algara nagusitu zen atzo Orexan. Kultur Hamabostaldia umore onez amaitu nahi zuten, eta horretarako Korri, Xalto eta Brinko pailazoak gonbidatu zituzten. *Show berria prestatzen* izeneko saioa egin zuten. Haurrek ez ezik, inguratutako helduenak ere barre galantak egin zituzten. *Show berria* prestatzen gogotik lagundu zioten pailazoari orexarrek.

Askotariko ekitaldiz betetako eguna izan zuten atzo Orexan. Nagusienak, haurren iritzi bederen, pailazoak izan ziren. 16:30erako herriko zein inguruko herrietako haurrak gurasoen eskutik Udalera gerturatu ziren. Ganbaratxoan eramatzen duten eskaileretan ezinegon berezia somatu zitekeen. «Pailazoak ikustera al zatozte?» galdetzen zuten askok. «Bai, noski, haurrak egun dezente daramate pailazoak ikusteko irrikaz», erantzun zuten bertaratutako amak semea eskutik tiraka zuela.

Semearen edota alabaren aitazkia ahotan zutela, aita-ama ugari igo zen ganbarara azkenean. Gogoz kontra inor gutxi igo zela zirudien. 50 ume inguru eta beste hainbeste heldu biltzea lotu zuten Korri, Xalto eta Brinkok. Zuzenago esatearren, Xalto pailazoak bakarrik izan zen Orexan eta bere hitzetan, «Orexako bidean galdu egin direla esateko deitu didate Korri eta Brinkok». Haurrek, erabat sinetsita, *show*-a jarraitzen utzi zioten pailazoari.

Orexako gazte bat pirataz jantzi zuen Xaltok, bi haurrekin erromeria egin zuen ondoren, ipuinak zozketatu zituen, eta Iñaki Perurenaren harria putz eginda lurrera ere bota zuen. Zur eta lur utzi zituen haur asko, eta helduek, aldiz, barre algaraka erantzuten zuten pailazoaren irtenaldiei.

Umorezko emanaldi honen ondoren, haurrek askaria izan zuten, zinez eskertutakoa, gainera. Iluntzean, aldiz, heri afaria egin zuten orexarrek. Ondoren, DJ Bull-ek dantzan jarri zituen guztiak eta erromeria egin zuten herriko plazan.

INKESTA ▶ Gustatzen al zaizkizu pailazoak?

URTZI ITURRIOTZ



«Asko gustatzen zaizkit pailazoak. Barre asko egiten dut, onak badira behintzat. Korri, Xalto eta Brinko ikusten ez naiz sekula izan. Gustatzea espero dut.»

MANEX MALKORRA



«Ez naiz askotan joaten pailazoak ikustera, baina asko gustatzen zaizkit. Zerbaite-tarako boluntarioak eskatzen baditu, ni animatzen naiz.»

AIORA SOROZABAL



«Pailazoak soinu handia egiten badi, batzuetan asko bedurtzen naiz. Hala ere, gustatzen zait noizean behin pailazoak ikustera joatea.»

MAIALEN SOROZABAL



«Ni ere beldurtu egiten naiz pailazoekin sarritan. Gaurkoan negar pixka bat ere egin dut gure ingurura hurbildu denean. Hala ere dantza ere egin dut.»

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Bertsolari Txapelketa. Eskualdeko bertsolarietatik nor iritsiko ote da dute urrutien? Web gunean sartu diren irakurleek argi dute, eta, euren iritzi, Iruran bizi den Aitor Mendiluze da postu onena eskuratuko duena. Hain zuzen ere, %51k du iritzi hori. Animatu inkestan parte hartzera. ▶

PRESOAK ▶

Sindikatuak presoan dispertsioa salatu dute

Etzi, hilaren 8a, lanuztera eta ekitaldietan parte hartzera deitu dituzte langile guztiak

M. SAN SEBASTIAN

Tolosaldean eta Leitzaldean ordezkaritza duten hainbat sindikatuk presoek jasaten duten dispertsioa salatzen komunikatua zabaldu berri dute. Azken gertakariak bultzatu ditu sindikatuak aldarrikapen hau egitera. Izan ere, urriaren 31n hilik aurkitu zuten Soriako (Espainia) espetxean Jose Angel Altzuguren presoak. ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, ELB eta HIRU sindikatuek sinatu dute dokumentu hori.

«Hamaika bider esan dugu dispertsioak hil egiten duela eta exijitu dugu euskal presoan Euskal Herriratzea. Eta, berriz ere, espero zitekeen gertatzen dramatikoa baten aurrean gaude», adierazi dute sindikatuek.

Honez gain, Jose Angelen kasuan egungo espetxe politikak eskubiderik oinarrikoenak ere aintzakotzat hartu gabe euskal preso politikoei inposatzen dizkien egoera gehienak agertzen direla aldarrikatu dute. Gainera, sindikatuek Jose Angel Altzugurenek bizitako egoera azaldu dute. «Hasteko, lau urte luzez prebentzio espetxeratzean egon ondoren, espetxeratze mota horren gehiegizko erabilpen nabarmena, hain zuzen ere, libre jarri zuten epaiketaren zain. Zazpi urteko espetxe zigorra jaso ondoren, berriro atxilotu eta espetxeratu egin zuten, bere gaixotasun larria kontuan hartu gabe. Atxilotu ondoren, Estatu espainiarreko espetxeetan ohikoa den desatentzio medikua nozitu zuten. Atxilotetaren lehen momentutik Jose Angelek berak gaisotasun egoera zehazten zuten mediku txostenak aur-

keztu arren, ez zuen inolako atentziorik izan. Bere familia gunetik urrundu zuten dispertsio espetxe batera, nahiz eta ondo jakin honek bere gaixotasunagatik zekarkion arriskua. Eta, azkenik, Sorian espetxeratu zutenetik isolatuta eduki zuten, bere kasuaren larritasunagatik debekatuta egon arren».

Horren guztiaren ondoren, sindikatuen iritzi sakabanaketa politikak erahil du preso politikoa. «Sakabanaketa presonegiko oinarriko tratamendu ororen aurka doa. Preso daudenekiko zein euren senide eta inguru sozial eta politikoa erekiko mendekuan eta xantaian oinarritutako erabaki politikotatik oinarritzen da», aldarrikatu dute sindikatuek.

Hainbat datu esanguratsua ere bildu dituzte sakabanaketa eta dispertsio egoera hau salatzen. «Presoak Euskal Herritik 616 kilometrora daude askotan, bisitak mantentzeko urteroko batezbestekoa 13.812 eurokoa da, dagoeneko 16 lagun dira presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoak, 2005. urtean 21 auto istripu izan dira, eta 56 lagun izan dira kaltetuak», azaldu dute. Hau guztia dela eta «presoan suntsiketa bilabilpen duen zigor eta kartzela politika hau» salatu nahi dute sindikatuek. Horrela, kartzela politika berrikustea eskatzen dute, eta *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean Euskal Herriko langileak lanuztera deitu dituzte euren lantokietan. Sindikatuek etzi, hilaren 8an, eguerdiko 12:00etan, Euskal Herriko hiriburuetan burutuko diren ekitaldietan parte hartzea deitu dituzte langile guztiak.

ADMINISTRARIA

Metalaren sektorean ari den eta Tolosaldean kokatuta dagoen enpresak ondorengo funtzioak beteko dituen administraria behar du:

FUNTZIOAK:

- Kontabilitatearen kudeaketa.
- Altxortegiaren kudeaketa: aurreikuspenak, kobraketak, ordainketak...
- Nominaren kalkulua.
- Banku eta gainontzeko finantza erakundeekin harremana.

ESKATZEN DENA:

- FP II administrazio ikasketak.
- Lau urteko gutxieneko eskarmentua.
- Hizkuntzen ezagutza baloratu da, batez ere ingelesa.

Bidali ezazu zure C.V., argazki batez lagunduta ondoren adierazten den helbidera: Erreferentzia: 0502 • Posta kutxatila: 38 • 20080 DONOSTIA

OHARRA: Kurrikulumak azaroaren 13a baino lehenago jaso beharko dira.



AGENDA ▶

DEIALDIK

Amezketeta. Arkupe dantza taldean parte hartu nahi duenak 943 65 54 97 edota 943 65 14 93 telefono zenbakietara dei dezake. 6 urteik aurrerakoak sar daitezke taldean. Euskal Herrian dantzatu izan diren dantzak ikas daitezke.

Amezketeta. Mus Txapelketa antolatuta du Amezketakoa Gazte Taldeak, gaur. Herriko frontoian izango da, 17:00etan. Edonork har dezake parte, eta izen-ematea 16:30etik aurrera izango da, bikoteko 10 eurotan. Irabazleak Txindoki jatekxan afari eder bat jasoko du sari, eta bigarrenak bi ardo botila.

Berrobi. Jon Ander Izagirrerren omenezko XVI. Frontenis Txapelketarako izen-ematea, hilaren 10a baino lehen udalekxan, Iriarte tabernan eta Iturriza dendan eta Tolosako eta Donostiako Aralar Kirolak dendetan. 19an hasiko da.

Tolosa. Oargi mendi elkarreak hilaren 7tik 13ra mendi materialeko merkatu txikia antolatuta du. Materiala Oargin (Santa Maria kalea, 4) utz daiteke, 20:00etatik 21:00etara. Informazioa, 630 57 93 95 telefonoan.

Tolosa. 0 eta 16 urte arteko haur eta gazteen gurasoen topaketak izango dira ostegunetan, 15:00etatik 16:30era, Haur Liburutegian, azarotik maiatz bitarte. Izen-ematea, Udala Gizarte Zerbitzuan (943 69 74 60), 6 eurotan.

Tolosa. DBH titulua lortzeko proba libreak izango dira abenduaren 13an Helduen Heziketa Iraunkorreak. Izen-ematea, bertan (Igaralde kalea, 23-25) hilaren 18ra arte, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Tolosa. Haripe jubilatuta elkarreak Gabonetako Loteria eta saskietarako zenbakiak salgai jarri ditu bazkide eta lagunentzat astelehen, asteazken eta ostegunetan, 10:30etik 12:30era.

Tolosa. 1940. urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute hilaren 19an. Izen-ematea, 943 65 41 05 eta 943 65 46 49 telefono zenbakietan.

Tolosa. 1955ean jaio eta aurtun 50 urte betetzen dituzten festa ari da prestatzen herritar talde bat hilaren 12rako. 11:00etan, argazkia aterako dute Hirukide Jesuitinatan; 14:00etan,

autobusa hartuko dute Izaskungo jatekxera joateko. Parte hartu nahi duenak 75 euro sartu behar ditu Kutxako 2101 0152 68 0125058396 kontu korrantean.

Tolosa. Engomadora Moderna enpresako langile ohiek bazkaria egingo dute Frontron jatekxan hilaren 12an. Izen-ematea, 943 67 46 69, 943 67 19 43 eta 943 65 19 55 telefonoetan.

Tolosa. Gerontologikokoaren Aldeko Plataformako kideak dendaz denda pasatuko dira etzi arratsaldean merkatariei *Eta orain zer?* izeneko kanpainako zapiak banatzeko, haiek komertzioetako erakusleihoetan jar ditzaten.

Tolosaldea. EHNA tramitatzeko aukera, gaur. Ibarra, 10:00etatik 14:00etara, udalekxan; Leaburun, 10:00etatik 14:00etara, udalekxan; Orendainen, 11:00etatik 14:00etara, udalekxan.

Villabona. Herriko web orriak euskaratzeko diru laguntzak atera ditu Udala Euskara Zerbitzuak. Informazioa eta izen-ematea, bertan (943 69 35 01), hilaren 18a bitarte.

Zizurkil. Jubilatuen Eguna: meza hildako bazkideen alde, 12:30ean; 14:00etan, bazkaria elkarrean; orduan, omenaldia egingo diete bazkide zaharrenei, eta txapelketetako sari banaketa eta dantzaldia izango da bazkalostean.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Pakita Barreroren 20 olio-pintura daude ikusgai Ostatuan.

Ibarra. Kutxa Kultur Ekintzak babestuta, bihurtik hilaren 21era Iñaki Vergararen *Herri-inauteriak* argazki erakusketa ikusi ahal izango da Benito Izagirre kultur etxean.

Tolosa. Mari Carmen Azaldegiren pintura erakusketa dago Frontron kafetegian.

Tolosa. Oargin, mendi elkarrean Mendiko Hamabostaldia dela-eta euskal mendizaletasunaren historiari buruzko argazki erakusketa.

IKASTAROK

Tolosa. Amaroz auzo elkarreak 4-7 urteko haurrentzat dantza ikastaroa antolatuta du. Izen-ematea, etzi, 17:30etik 19:00etara, elkarrean egingoiz. Informazioa, 656 73 92 90 telefonoan.

Tolosa. Amarozko dantza taldeak euskal dantza ikastaroak antolatuta ditu. Ostegunetan izango dira, 20:30etik 21:30era, auzo elkarteko egoitzan.

MENDI IRTEERA

Villabona. Aizkardioek antolatuta eta *Euskal Herriko hiriburuak* uztertuz egitasmoaren baitan, Opakua-Azazeta irteera egingo dute hilaren 13an. Izena emateko deitu 943 69 44 58 telefonora, edo Aizkardiren lokalera azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara bitartean.

ZINEMA

Leitza. Alexander Payneren

Entre copas filma izango da ikusgai, 19:30ean, zinema aretoan.

Villabona. *Madagascar* filma emango dute gaztelaniaz, Gurea zinemaren, 17:00etan; sarrera, 2,5 euro. Leku berean, 19:30ean eta 22:00etan, gaur eta bihar, *Aupa Etxebeste!* filma izango da ikusgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Bihar
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Ollarrea, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

AGURRAK ▶

HITZA,

zorion agurren tarte

Mesedez,
argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Doan BERRIArekin

PURTTXUPURTTXU

familien karta-jokoa

Azaroaren 5etik aurrera

berria

Doan irratigaztetan auzoan eta dela esku-biderik irratia esan du Europari

Euskaldunok behar dugu **berria**